

Baztandarren Biltzarra, aurtengoan bai

Iazko geldialdiak, hatsa hartu eta indar berriekin aitzinera egiteko balio izan duela iduri du

Igande honetan, hilak 19, Baztandarren Biltzarra ospatuko da Elizondon. Iaz egun hau ez egitea erabaki zuten antolatzaileek, hauen ustez jendearendako bestak hasieratik zuen erranahia galtzen hasia zelakoz. Aurtengoan, ordea, gaztetua eta gogoberritua heldu da. Egitarauan aldaketa haundirik ez bada ere, eguerdian izaten

den orga apainduen desfilea azken boladako baino ikusgarriagoa izanen dela iduri du.

Gero, Merkatu Plazan egingen da urteroko herri bazkaria, kantari,

bertsolari eta dantzariak alaitua. Eta besta eguna akitzeko Laiotz taldearekin dantzaldia izanen da Elizondoko plazan.

Ea bada espero bezain ongi ateratzen den dena eta urte aunitz irauten duen besta eder honek.

➡ 22

3 Elkarriketa: GAZTE JOKOAK

Beran urtero arrakastaz jokatzen diren herri olinpiada gisako hauei buruz mintzatu gara antolatzaileekin. Aurtengoan bada zenbait aldaketa egitarauan.

6 Iritzia: Zer da Euroa?

Gai honen inguruan jendeak dituen kezak eta jakinminak bildu ditugu.

28 Kirolak: Bortzirietako Futbito Txapelketa

Txanpion Luis taldeak irabazi du aurtengo txapela.

4 Erreportaia:

Larrungo Tren Ttikia

Saint Ignaceko lepotik Larrungo kaxkoraino goitzen den trenak 350.000 bisitari inguru izaten ditu urtero. Tren berexi hau 1924. urtean hasi zen bere orduerdiko ibilaldi-txoa egiten. Orduztik, uda guzietan turista garraioan aritzea tokatzen zaio. Treneko langileekin eta Elias Tapia zuzendariarekin mintzatu gara.



EGUNEKO DATU ZENBAIT

- Desfilea eguerdiko 12etan hasiko da
- Ondotik Mutildantzak Plazan
- Herri Bazkaria 2,30etan hasiko da Merkatu Plazan
- Bazkalondan kantariak, bertsolariak eta dantzak
- Eguna akitzeko dantzaldia Plazan



DONEZTEBEKO GASOLINDEGIA

Leitzako errepidea, 49

Tel.: 948 451679

Fax: 948 450857

Gasolindegia berria Donezteben



Gasolindegia

Autoaren osagarri eta ordezeko piezak

Larunbata eta igandeetan ere egun guzia zabalik

Bigarren eskuko autoetan aukera zabala

ttipi-ttapa-ren zerbitzu komertzialak

FOILETOAK

Diptikoak, Triptikoak,
koloretan eginak,
zuribeltzean,
offset-ean edo
fotokopietan...



KARTELAK

Naurri, kolore
eta paper
desberdinetan



ALDIZKARIAK

Komeni zaizun
naurri eta
kopuruan, zure
gustora
diseinatuak



INPRIMAKIAK

Kartazalak,
egutegiak,
buzoiratzeko paperak,
errekordatorioak



TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
zerbitzu egoki eta profesionala
eskaini nahi die bere lagun eta
bezeroei. Horretarako sortu du
KULTURKARI, zuk behar
duzuna momentu batean
egiteko, zure gustura
diseinatu eta merke.
Deitu lasai, eskatu
aurrekontua eta ikusiko duzu!



+ 948 631188

KULTURKARI

DATUAK.....

❖ Igandean emanen zaie hasiera Beran III. Gazte Jokoei.

❖ Herri olinpiaden izpiritu berbera dute ekintza ludiko hauek, eta herriko 150 bat gazte mugitzen dute urtero.

❖ Taldeen arteko proba nagusia Bidasoako Jautsiera izanen da aurtentzen, bainan zenbait kultur ekitaldi ere antolatu dituzte jende guziari idekiak: rock kontzertua eta antzerki emanaldia, bertzeak bertze.

❖ "Mozketa sakona" izeneko animazio pelikula eta "Txotx" laburmetraia botako dituzte pantaila erraldoiean.

❖ Bertzalde, "Arratsero-arras ero" leloa aukeratu dute aurtengorako.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
ASIER GOGORZA

👉 **Berako Gazte Jokoen antolatzaileak**

"Urte osoan harremanik ez duen jendea elkartzeko da 15 egunez"

EGITARAUARI BEGIRATUTA, ALDAKETA NABARMENAK ANTZEMATEN DIRA. ZER DELA ETA BERRIKUNTZA HORIEK?

Alde batetik, garaia aldatu dugu, azterketen-gatik-eta. Orain arte maiatzean egiten genuen. Bertzetik ordutegia, aurtentzetatik aitzinera egingen dira. Izan ere, Beran ez baitago deus ere udako arratsetan.

PROBAK ERE EZ DIRA IAZKO BERDINAK...

Proba batzuk mantendu ditugu, parodia adibidez, urtero arrakastatua haundia izaten duela-koz. Baina beldurra genuen formula berbera hirugarrenez errepikatzea nekagarria izanen ote zen. Bertzalde, jende gehiago inplikatu nahi izan dugu aurtentzako antolakuntzan.

HASTAPENERA ITZULIZ... ZEINTZUK IZAN ZIREN GAZTE JOKOEN SORTZEA ERAGIN ZUTEN FAKTOREAK?

Hutsune batzuk ikusten genituen herrian. Asteburuetan, adibidez, musika edo kirol arlotik aparte ez dago batere aukerarik gazteentzat. Orduan, Hondarribiako olinpiaden eredu hartuta, Gazte Jokoen egitaraua egokitu genuen. **ZE BALORAZIO EGITEN DUZUE ORAIN ARTEKO IBILBIDEAZ?**

Arras balorazio positiboa egiten dugu parte-hartzaile eta ikusleen al-



«Garbiñe, Fernando, Joxelu eta Joseba koordinazio lanetan aritu dira».

detik, baina gazteak antolaketan gehiago inplikatu beharko lirake. Ikusten da jende hori ez dagoela ohitaturatua erresponsabilitateak hartu, edota ideiak botatzera. Hala ere, hori ez da bat-batean ikasten, eta horrelako gauzetarako ere balio dute Gazte Jokoeak.

PROBARIK AIPAGARRIENA BIDASOAKO JAUTSIERA DA AURTENTZEN,

DUDARIK GABE.

Bai. Udan egin behar dugunez, urean egin nahi ditugu zenbait proba. Horieta bat igerilekuan izanen da, eta bertzea, berriz, Bidasoan. Partehartzaileek Diskotik San Martingo presaraino jautsi beharko dute eurek egindako baltsatan. Ez da bakarrik puntuatuko zein ailegatzen den lehena, baltsaren eta tripulazioaren itxurak ere kontutan hartuko dira, hau da, kreatibitatea.

BESTETARAKO GIROA BEROTZEKO ERE BALIO-

KO DU HONEK, EZTA?

Bai. Nik uste Berako bestak desberdinak izanen direla aurtentzen. Gazte Jokoen urtean osoan zehar harremanik ez duen jendea biltzen da 13 egunez. Horren eraginez, beharbada gehiago ligatuko da aurtentzako bestatan. Guk badaezpada ere kondoiak jarriko ditugu Iamotenean... Izan ere, gazteenkin lotzen diren gaiei buruzko erakusketak izanen baita egun zabalik egun; sexualitatea, drogak... joko interaktibo bat.

❖ *"Hutsuneak ikusten genituen herrian. Asteburuetan, adibidez, musika eta kirol arlotik aparte ez dago aukerarik gazteentzat"*



Larrungo Tren Ttikia

74 urte turistak garraiatzen

1924. urteko apirilean egin zuen lehendabiziko joan-etorria Larrungo Tren Ttikiak. Orduz geroztik milaka eta milaka turista eraman ditu Saint Ignaceko lepotik Larrungo kaxkoraino, frantsesak gehienbat. Hemen inguruko jendea ere joaten omen da, igande eta besta egunetan batez ere. Denetara, urtean ia 350.000 bisitari garraiatzen ditu tren historiko honek, eta urtetik urtera kopuruak haundituz joaki dira, gainera.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: ASIER GOGORZA

Larrun mendia —edo Larun, hegoaldean erraten zaion bezala, baina inondik ere ez frantsesak jarri dioten La Rhune xelebre hori— Euskal Herriko mendirik bisitatuena da, dudarik gabe. Egun ederra delarik, batzazbeste 4.000 turis-

ta igan ohi dira, kaxkotik dauden bistekin gozatu eta bentetan erosketak egitera. 1908an Tren Ttikiaren lehendabiziko proiektua aurkeztu zutenek aski ongi zekiten turistak alfer xamarrek direla toki guzietan, eta, oinez goitzekotan, nahiago izaten dutela mendia beheitikaldetik begiratzea. Trenean tirriki-tarraka goi-

tzeko, ordea, ikaragarritzko iladak sortzen dira Sara eta Azkaine artean dagoen Saint Ignaceko estazioan. Gu bertan izan ginenean, erraterako, 2.500 bat lagun ibili ziren egun osoan, nahiz eta ortzegun soil bat izan. Turista gehien-gehienak frantsesak izaten dira, Jean Michel Gachen treneko langileak erran zigunez, «gero

espainiarrak ere etortzen dira pixka bat, eta Ingalaterra aldetik ere zerbait. Euskaldunak, hemen ingurukoak, igandetan-eta ibiltzen dira batez ere».

Sosak Paris aldera doazi

Erran bezala, 74 urte luzez aritu da tren berexi hau turista garraioan. Denbora horretan, diru parrasta bat u-

URTEA BISITARIAK

URTEA	BISITARIAK
1994	248.191
1995	280.660
1996	300.169
1997	345.000



«Iparraldeko 3 leku bisitatuenetarik 2 ditugu Saran»

Bertze herrietan baino puskaz etekin gehiago ateratzen diozue Saran turismoari. Zein duzue horretarako sekretua?

Sarako herrian badugu suete bat, baditugu bi le-



ku ikusgarri, iparraldeko 3 leku bisitatuenetarik 2 ditugu hemen. Bat Larungo tren a, urtero 350.000 pertsona baino gehiago ibiltzen dituena, eta bertzea Sarako lezeak. Larungo tren a neguan itxirik egotenda, baina guk eta Sarako Herriko Etxeak uste dugulezetan urte guzian

behar dugula jendea errezibitu, kultura aitzinat aritzeko. **Trena dela, edo lezeak direla, jende aunitz bizi da inguruotan turismotik...**

Bai. Neguan 10 pertsona aritzen dira lezeetan, eta orain udan 40 lagun baino gehiago, gehienak saratarrak. Aurt en, ordea, kanpoko jende ari ere ateak zabaldu dizkiogu, eta badugu Donostiako pertsona bat eta bertze bat Donibane Lohitzunekoa. Trenean berriz, 30 bat lagun aritzen dira trenbidean berean. Parte bat saratarrak, bertze bat azkain-

darrak... ez da ahanzi behar Larungo mendi puntan badirela bentak, eta horietan jende ainitz aritzen dela lanean, bai Berakoak eta bai ingurukoak.

Eta, zein da gaur egun trenaren jabea?

Orai dela hiru bat urte Frantziako sozietate haundi bat tek erosi zituen akzio gehienak, 'general des aux' delako enpresak. Horiek publizitatea karraskan ari dira egiten. Halere, Sarako lurretan egoteagatik Herriko Etxeak diru pixka bat hartzen du urtero.



- ▼ Egun 4 tren ibilki dira Larrungo magalean
- Tren batek 150 lagunentzako lekua du
- ▼ Egunean 6 bat itzuli egiten du tren bakotxak
- Udan 4.000 lagun inguru ibiltzen da egunero
- ▼ Batez ere turista frantsesak joaten dira

Tren ttiki baten zenbaki haundiak



tzi dute leku guzietatik hurbil dutako turistek. Gaur egun Larunera joan-etorria egin nahi duen edozein emakume edo gizasemek 50 libera (1250 Pta) utzi behar du takillan. Hauerek, berriz, 35 libera (875 pezeta) ordaindu behar izaten dute bidaia, eta oraindik harriarriagoa egin zaiguna; zakurrei ere tarifa horixe be- ra aplikatzen diete.

Kontutan hartu behar da denboraldi hondarrerako 350.000 bat lagun garraiatzen dituela trenak. Kalkuluak ateratzen hasi ezker, beraz, ohar- tuko gara lerro oso bat zeroz betetzeko hainako irabaziak sortzen dituela urtero. Alde horretatik, trenaren nagusia ez da kexu izanen seguraski. Eta nor den Tren Ttikaren jabea? Duela hiru urtetik honat, Pa-

risko "General des Eaux" enpre- sa publikoak har- tu zituen bere gain trenaren ak- ziorik gehienak, eta baita etekin ederra atera ere. Datozen 17 urte hauetan ere euren esku izanen dute

gainera. Elias Tapia, Sarako Lezeetako eta Larungo Trene- ko zuzendariak adierazi digu- nez, enpresa horretakoak la- na gogotik egiten ari dira publi- zitatean, eta gaur den egune- an Frantziako turismo gida gu- zietan agertzen omen da La- rrun eta trenaren berri. Sos guzia ez da, ordea, Paris aldera joaten. Izan ere, Sara- ko Herriko Etxeak, bere lu- rretan egoteagatik, badu es-

- ▼ Trenek 3.000 voltako korrante elektrikoa dute.
- Bina motor dituzte, 160 zaldikoa bakotxa.
- ▼ 8 Km/orduko abiaduran, 35 minutu ematen ditu 4,2 kilometroko ibilbidea egiteko.
- Maldarik gogorrena %28koa da, eta 721 metroko desnibela gainditzen du denetara.
- ▼ Sara eta Azkaingo 30 lagun aritzen dira udan trenbidean lanean.
- Joan-etorria 50 libera (1.250 Pta) gostatzen da. Haurrak eta zakurrak: 35 libera (875 Pta).

kubideren bat tren ttiki honen gainean, eta urteroko irabazi- en portzentai ttiki bat geldi- tzen da herrian.

Zorioneko edo zoritxarreko tren a

Diru kontuak alde batera utzi- ta, erran behar da betidanik trenaren aldeko eta kontrako eritziak sortu direla inguru hauetan. Turisten sosak he- men gelditzen direla arguia-

tzen du- te batzuk, eta gainera, pertsona ezinduek eta haurrek aukera dutela Larrunerat goitzeko. Bertze aldetik, horrenbertze jende mendian barna ibiltzea inguru- giroarentzako arras kaltegar- ria dela pentsatzen duenik ere b a d a - . Dena den, ezin da ukatu tren xahar -baina nekaezin- ho-

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.850 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria: Aitor Arozena. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Pablo Mendiburu, Franc Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogorza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

Inprimategia: Gertu.

ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Eus-kara Mankomunitatea, Malerre-kako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar-tea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Zer da Euroa?

2002. urtean sartuko da Euroa eta anartean ez da fitsik egitekorik



Philippe CARRICART
Senpere. Credit Agric.

Moneta zaigu aldatuko baina jendeak ez du beldurrik izan behar, hori 2002. urtean izanen baita. Anartean, ez da fitsik egitekorik: esplikazioak emanen dira, jendeak jakin dezan zenbat balio duen, baina lehengo monetari eutsiko zaio. Heldu den urtetik harat, bankuetan kontuan zonbat den bi monetetan emana izanen da, libera eta Eurotan. Honela emeki-emeki jendea usatuko da, leitzen bederen, balioa zertan den. Komertzio eta enpresa handiek zabaldu ahal izanen dituzte eurokontuak eta haientzat, menturaz, on izanen da jada eurokontu hori. Baina gainerako jendearentzat ez da fitsik aldatuko, ez lukete arrangurarik izan beharko. Orain arte Senperetik Berara joateko, hogoi bat kilometro, moneta aldatu behar zenuen. Orain edozein tokitan ibili ahal izanen gara moneta berarekilar, hori jende gehienarentzat hobetze eder bat da. Libertate eta posibilitate batzuk irekitzen ditu. Hegoalde eta Iparraldeko enpresen arteko harremanak ere garbiagoak izanen dira. Gauzak ximpleak dira eta jendeari erran behar zaio ez dela arazorik izanen eta lasai egoteko 2002. urteko martxoa arte.

Zergak orain arte bezala atxikitzen badira ez dugu diferentziarik sumatuko



Pantxo IRIBARREN
Dantxarineako benteroa


Inpuestoak orain arte bezala atxikitzen badira, ez da diferentzia handirik sumatuko muga aldeko gure komertzioetan. Dantxarinean frantsesei gehien saltzen zaiena edari alkoholoduna da, baina hemen produktu hauek inpuesto gutiago ordaindu behar dituztelako. Ez da pezeta eta liberaren arteko diferentziagatik. Gu ohituak gaude pezeta eta liberetan prezioak ikustera, baina euroa berria da. Orain mila pezeta dituzu eta zerbait baduzula uste duzu, baina eurotan bisi dituzula iduri du. Prezioak ere araberan badira ez da deus pasatzen. Gu ez gara oraino prezioak eurotan jartzen hasi, baina heldu den urtean hasi beharko. Pezetekin ez genien kasu egiten, baina orain berriz ere, zentimoak eta honelakoak ibili beharko ditugu, eurotan diferentzia handia baita; azkenean, bueltak eta bueltak, lehengo molde zaharreen. Hastapenean, buruan sartzea ez da errega izanen, batez ere adineko jendearentzat. Estranjerira ateratzen bazara ez duzu kanbioa nola heldu dengaldetu beharko, ez zara engainatua izanen. Orain, hemen bi euro balio duenak Alemaniara gan eta bortz balio baditu...

Zerbait heldu dela bai, baina euroa zer den ez daki oraindik jendeak



Joxe Julian SALABERRIA
Goizueta. CAN.

Euroak zer eragina izanen duen ikusteko dago oraindik. Esaten dutenez mugak zabalduko ditu eta, alde batetik, kompetentzia gehiago izanen da, eta beste aldetik, erreztasun gehiago dirua mugitzeko. Jendeak ez daki oraindik zer den euroa, zerbait heldu dela aditu du, baina besterik gabe. Bazter batera uzten du kontu hau eta eguna ailegatzenean, problema bat baino gehiago izanen dela iruditzen zait. Nik neonek ere ez dakit gauza handirik: ehun eta hirugogaita piko pezetaren balioa izanen duela, 2000. urtean hasiko dira lehenbiziko monetak sartzen eta 2002. urtetik aurrera nahitaez erabiliko behar dela, pezeta eta gainerakoak desagertuko baitira. Konplikazio dextente ekarriko ditu, bi kontabilitate eraman beharko dira, programa informatikoak ere aldatu beharko dira... Adineko jendeak izanen ditu arazorik handienak: orain 50.000 pezeta kobratzen baditu eta gero 300 Euro... 300 pezeta direla irudituko zaio. Euroa jartzea positiboa edo negatiboa izanen den... ez dakit. Lehenbizi saltza eta endredo handia izanen duk eta gero ikusiko diagu.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Errespetua... Kitto!

Euria ari du Beran, berriz ere. Bai kalumnia zaparrada ikastolaren gainean baita desegokitasun erauntsia ikastolaren egoera harriduraz hartu duten zernahi eta normahirentzat ere. Jendeak galdegiten du zer dela eta honelako jasa eta nolatan bapatean ekaitza gainean den. Euria ari du, bai, aspalditik ordea. Horrexegatik, aspalditxo ziri-miri honetako ziriekin iduri dutelako, oraingo honetan ere Labiaga ikastolako guraso, irakasle eta langile Batzordea ez da salaketa eta eskusartze berri (zaharrak berri?) hauen motibazioak agerian uzteko ahal ginetan hasiko. Ez dugu bazterrak nahasten hasi behar eta nork bere ondorioak atera ditzala. Halere, eta segidan azaldu behar duguna gure difamatzaileek aski ederki badakitela jakitun, Pernandoren egia irudi zaizkigun oinarriko zenbait gogo eta berretsi nahi ditugu publikoki eta akabera gisa:

1- Zuzenbidearen arrastoa-ren bete-beteko gaia izateaz gain, Labiaga ikastola galdetzen ari dena-DBHko etapa legeztatzea- gizaki orok (guraso orok) ikastetxea aukeratu eta sortzeko eskubidean oinarritzen da. Areago, ikastolak inongo ikastetxe berriak sortzeko asmorik ez duenean, orain artekoa LOGSEri egokitzea bertzetik ez baita.

2- Zonalde honetan euskarazko irakaskuntzaren alde 24 urtetan lanean aritu eta gero orain dominak bularre-ratzen hasiko ez garen bezalaxe, ez dizkiogu inori kenduaraziko. Izan ere, ikaragarri pozten baita D eredua-ren zabalkuntzak herri, sare, ikastetxe eta etapa guztietan, eta horrelaxe aldarrikatuko dugu orain eta beti.

3- Gezurra da arrontean ikastola inori eta deusi boikota egiten ari zaionik.

4- Hauxe omen da gure be-

katua: gure egoera salatu eta konponbide bat exijitu Hez-kuntza Kontseilariatzako bu-ruzagitari (Markotegi eta Arellano jaunak). Hortaz, gu-re afera epailearen ebazpe-naren zain *sub judice* dago-en bitartean, bi jaun hauen argudioen esperoan gaude. Ez dugu ametituko bertze inork kexatzeko eskubidea galaraz diezagun (eskubide hau ere ukatu behar al zai-gu?). Gure aldarrikapena le-gezko eta zuzenki ardura-dunei igorritakoa da ("barri-kada" Iruñean da, ez Etxe-an). Mesedez, inork ez di-tzala islatu bere balizko frus-trazioak guregan. Egiareki-ko errespetua exijitzen dugu, gure salatzearekiko erres-petua. Berriz diogu: utz gai-tzazue bakean. Aitzitik, bai Nafarroa bai Bortzirietako euskararen irakaskuntzaren eta euskararen beharrak kon-pontzearen alde bulkaka egin behar izanez gero, hemen gaituzue esku lanean aritzeko.

5. Errepika: Gure borrokare-kiko errespetua (elkartasu-na behar dugu eta hori eze-an, gutxienez errespetua, bi-dean hankatrabarik ez).

JOSU IRIONDO MARTIARENA
LABIAGA IKASTOLAREN IZENEAN



Euskararen egoeraren errudun, ETA ote?

Ekainaren 18ko TTPI-TTAPAN honela ematen zuen aditzera Andoni Espartza Leibaren idatzi batek. Idatziaren hasie-ran Tomas Caballeroren hil-keta aipatzen du. Ondoren, segitzen du erranez *indarker-ia Euskal Herriaren etorki-za baldintzatzen duela*. Lerroalde berean gogoratzen du eskoletako matrikulazioan Euskara ereduaren gorakada, egoera hain txarra ez dela erakusteko. Hau nahasketa! Indarkeria aipatzen denean nabari da zein indarkeriaz ari den. Eta zer gertatzen da

bertze indarkeriekin? Egu-nero, eta momentu guztietan indarkeriaren menpe gara. Kontrol polizialen sareak in-guratuta gaitu. Herrialdeko Gobernutik larriki erasotzen diote gure kulturari eta gure hizkuntzari ("demokratiko-ki"). Euskal militanterik prezi-atuenak, beuren lege kan-po, bahiturik dauzkate. Ber-tze Komunitateko polizia zi-paioak, orain delaegun gu-txi "Ina" erahil zuen; Ikaraz edo nola? Hau dena ezta-baidagarria izan daiteke, bai-na euskararen egoera ne-n. Negatiboa ETARI leporatzea, hi-pokresia hutsa iduritzen zait. Badago zer egin euskara era normalizatu batean bizitze-ko, gure eskualdetik hasita. Administrazioan lan aunitz egiteke dago. Lantegietako harremanetan bere erabile-ra hagitx eskaxa da. Leku publikoetan, komertzioetan, banketxeetan..., borondate-aren arabera sumatzen da. Irakaskuntzan, Nafarroako Gobernutik jarrera lotsaga-bea agertzen dute.

Betidanik izan dira herri hone-tan abagadunezaleak. Zuk egin duzuna, gainera, ez da batere originala; hilabete bat lehenago "Nafarroako eus-kalgintzako 134 kidek" egin zutenaren antzekoa egin nahi izan duzu. Ansuategi bezala-ko batzuk, eta Nafar Gober-nuko Kultur-Hezkuntzako ar-duradunak poztu egingen di-ra zuk egindako idatzia be-zalakoak irakurtzen. Bene-tan kezkatuta bazaude eus-kararen egoera eta bere ga-rapenaz, elkar ikusiko dugu talderen batean lanean. Eta ikusiko duzu zein diren, eus-kararen etsaiak eta bere gar-apena galarazten dutenak. Mina egin badizut, barkatu, baina ezin dut onartu azal-tze hipokritarik, eta gure etsaiei inolako babesik eman diezaikeke agerraldirik.

JULEN MITXELTORENA



Elkarbizitza hobe bat behar dugu!

Berriz ere, Areso inguruko-en lotsemangarri izaten ari da eta, berriz ere, alkatea da, aurre-aurrean agertzen ari dena, herria modu diktato-rial eta kazikilean eramateko bere nahiean. Oraingoan, Guardia Zibilari deitu dio. Ara-zoa non dagoen badakigu, eta oraingoan aitzakia zein izan den ere bai: San Pedro-etan argia hartu ahal izate-ko entxufe baten erabilera. Eta "arazo" bihurtutako go-rabehera horrek protagonis-ta izan direnen (gazteak) ar-teko konponbidea eskatzen zuen. Neurritz kanpokoa da Guardia Zibila ekartzea, eta horrela jaiak zapuztea.

Alkate Jauna, lotsagarri eta triste da. Askatasun bijilatu-an gaudela iruditzen zaigu, eta zu izan zara hori eragin duena. Gazteen aurkako zer nolako informazio kriminali-zatzaile eman ote diozu Guardia Zibilari hain azkar eta gogor etortzeko?

Dena den, herritarroke zagu-tzen dugu bertako gazteei buruz duzun iritzia: denak galduak daudela, dozena er-di bat ezik, horien artean, no-la ez, zure bi seme-alabak. Nahikoak dira probokazio eta tentsionamenduak! Elkarbi-zitza hobe bat behar dugu eta horretarako, bene-be-netan, erretiratzea eskatzen dizugu, eta jubilazioaz goza dezazula, merezi baituzu bizi-tza osoan lanean igaro ondo-ren. Utz ezazu herriaren etor-kizuna pertsona irekiagoen esku, oraingo mentalitatea dutenen esku, eta, noski, bereak ez diren ideiak ere onak izan daitezkeela uste dutenen esku.

Balora ezazu, Alkate Jauna, eta, behingoz, egin ezazu zerbait ona Aresoren alde: Dimiti ezazu!!

ARESOKO

HERRITARREN ASANBLADA



Labiaga Ikastolaren si-nadura bilketari buruz:

Gaur egun, guraso eta irakas-leei esker, zinez erran deza-kegu eta erraten dugu: Bor-tzirietako Eskola Publikoetan, LH eta DBHn, irakaskuntza euskaraz, dohainik eta kalita-tezkoa eskeintzen da. Ez gaude prest Eskola Publikoe-tan eskeintzen den kalitatea zalantzan jartzen uzteko, sektore interesatu batzuk egin duten bezala. Gaur egun Toki Ona Institutua martxan dugu, bere material eta giza baliabide guziekin, baina ber-tze arazo bat sortzen zaigu eta Labiagakoei egoera se-rioski kontutan hartzea es-katzen diegu. Bortzirietako ikasle kopuruarekin, nola es-kaintzen ahal zaigu DBHn kalitatezko irakaskuntza, ikastolakoek ez badute Ins-titutokoekin bat egiten?

Bestalde, zera galdetzen du-gu: Bortzirietako Institutuan gaur egun Batxilergoko auke-ra gehienak izaki (artistikoa ezik), heldu den ikasturtean ikastolako ikasle gehienek kanpora joko dute, hemen eskaintzen diren ikasketa be-rak egitera; nolatan hori?

Gure seme-alabek ere, he-mendik guttira kanpora jo be-harko dute Bortzirietan ezin izan diren ikastetxe baten alde lan egiten dugu, euskalduna eta publikoa de-na, ikaslegoaren heziketa in-tegrala eskeintzen duena eta aniztasuna kontuan hartzen duena hain zuzen ere. In-guruan txertatua dagoen ikastetxe sendoa.

Aipatu ditugun arrazoi hauek direla eta, ez dugu idatzia sinatuko eta gizarteari haus-narketa eskatzen diogu.

RICARDO BAROJA, IRAIN, ARANTZA
ETA ETXALARKO GURASO ELKARTEAK



 **Marisol TABERNA** *Ricardo Barojako irakaslea*

Arantzan zer, Euskaraz leher Beran zer, Euskara leher



Duela aste gutti Arantzan UEMA-ren Eguna ospatu zen “Arantzan zer, Euskaraz leher” lelopean.

Arantza herri ttikia omen eta bertakoek umea izaterakoan zein eskolara bidaltzeko arazo gutti dute, hain zuzen ere bertan eskola bakarra baitago, denentzat bat, herriarena dena. Eta eskerrak eskola badagoela, ze eskolak herriari izugarrizko bizitsuna ematen baitio. Herri txiki-tan eskola desagertzeak ikaragarritzko gale-
ra suposatzen du: bertako hurrek kanpora joan behar, kanpoan egun osoa ematen dute eta herria loak hartuta bezala gelditzen da. Bera, berriz, herri koxkorragoa da, ez hain handia, eta hemen umeak izateak berez suposatzen duen aldaketa, poza, ilusioa, bertze sentimentuekin nahasten da. Ume bat jaiotzen denean hainbat ikastetxetako ordenagailutan argi gorri bat bixten da, fitxa bat irekitzen da: gurasoen jatorria, familia, giro soziala, ideologia... zirkuitoa martxan jartzen da. Kalean begiradak zelatuak dira eta hainbertze burutan sortzen den galdera: “Zein eskolara eramanez dute haurra?”. Guraso horietatik batzuk argi izanen dute, bertze batzuk berriz, ez, eta ez lukete horrelako zama jaso nahi.

Beran, giroa nahasita dago, ixilean batzutan, baina tentsioa nabaria da, hainbat bandedago, eta familia bereko, koadrila bereko, auzo bere-

ko, kideak banatuta gaude, distantziak sortzen dira. Herriko Etxea ere tentsio honen lekuko da, bertaraino iristen baita gurutzada honen eztena.

Bortzirietako komunitatea ere ez da hain handia, eta gurea bezalako bertze zonaldetan ez dute bigarren hezkuntzako ikasketak bertan egiteko aukerarik eta guttiago batxilergoak eta lanbide heziketako ikasketak, hemen berriz, bi aukera defendatu nahi ditugu DBH-rako eta ondoko ikasketar-

Beran ume bat jaiotzen denean hainbat ikastetxetako ordenagailutan argi gorri bat bixten da, fitxa bat irekitzen da.
“Zein eskolara eramanez dute haurra?”

rako kanpora bidali nahi ditugu “hobea” delakoan. Hona aipatutako guztia desagertzea baino ez dugu lortuko. Eta hori denen kalterako da, herriaren kalterako eta zonaldearen kalterako. Ez dakit egoera honek irtenbide egokirik izanen duen edo ez, nik dakidala azken hamabortz urteetan solasteko saiakera bat edo bertze egin da, gehienetan ixilean gelditu direnak, ziur nago jende aunitzek duela honen berri, dena den, bertan behera gelditu izan dira.

Duela egun gutti, batzarre batean herriko alkateari zera aditu nion: “Ez dugu inor kaltetu nahi”. Nola lortu hori? Nori dagokio hemen busitzea? Denei, nere ustez, herriarrei, ikastetxetako arduradunei, gurasoei... eta Udaletxetako ordezkari-

 **Txus PERNAUTE** *Baztango AEK*

Euskaraz bagara!



Euskarak eta AEKk hila-bete hauetan jasotako erasoen berri eman nahian zuzentzen gaitzaizkizue.

Gauza jakina da aurtengo ikasturtean AEK inoiz ez bezalako erasoak ari dela jasaten. Oroituko zaretenez, egoera honen hasiera puntua Amarako Euskaltegian egin zen ariketa batek ekarri zuen. Gerora hilero agertu da prentsan AEKren lana eta konpromezu zintzoazagutzen ez eta ezagutu nahi ez balitz ikasturte amaitzean gertatutakoa: Maiatzaren 27an Poliziak Ike-
ra Beristain AEKkide atxilotu zuen.

Atxiloketa honekin batera Gipuzkoako bulegoan sartu eta inongo salaketarik gabe, epaile baten aginduz AEKko informazio eta materiala eramanez zuten. Hurrengo egunean, gure kontu guztiak blokeatu eta interbenitu zituzten, lotura absurdoak sortuz, erakunde guztia kaka-ztu nahian. Honen ondorioz, 113 ikasgureen funtzionamendu ekonomikoa blokeaturik egon da bi astez eta momentu honetan ez dakigu zer nolako baldintzapean edota zein epealdirako desblokeatu duten. Azken finean, ez du inport kontuak erabat garbiak eta gardenak izatea, helburua Euskara eta AEK zigortzea baita. Honen guziaren aurrean, Euskal Herria euskalduna izan arte lanean segitzeko konpromezua berretsi nahi dugu, beraz, guk gurean segituko dugu, helduen euskalduntze eta alfa-

betatzean, hori baita gure eginkizuna, euskararen normalizazio bidean gure apor-tazioa egitea.

Horrela, ikasturtea akitu eta uda ailegatzearekin batera, eskaintza bereziak plazaratzen ditu AEKk, euskara ikasi edo urtean zehar ikasitakoa hobetu nahi duten guzietan zuzenduta.

“Euskaraz bagara!” da aurtengo leloa, izan ere, euskararik gabe gure nortasunaren, gure izatearen zati handi bat maingu geratuko baiditzateke. Euskara behar bai-

Azken finean, ez du inport kontuak erabat garbiak eta gardenak izatea, helburua Euskara eta AEK zigortzea baita.

tugu garena izateko.

Beti bezala, bi dira AEKk eskaintzen dituen ikastaro mota nagusiak; euskaltegi-takoak batetik eta barnetegi-
giak bertzetik. Lehendabizikoei dagokienez, eskualdean, abuztuan izanen dira, urratsak, ordutegiak eta bertzelako zehaztasunak eskararen arabera izanen dire-larik. Barnetegi-
giak dagokienez eskaintza zabala da; 14 herri-
tan antolatuta dira barnetegiak, beti ere, hauetara doan edonork badaki ongi pasatzeaz gain giro erabat euskaldunean murgilduko dela, bertako euskaldunekin harremanak izanen dituela eta, finean, egunero 24 orduz euskaraz bizi ahal izanen dela. Azkenik, egoera latz honen aurrean elkartasuna adierazi diguzuen guzietan esker mile.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egunkaria, 98ko uztailaren 3a

«Besta ohiturak aldatu dira. Lehen txarangaren gibeletik ibiltzen ginen egun osoan, eta arratsean musika bukatutakoan ostatuak itxita zeudenez, solasean aritzen ginen. Gaur egun gaupasak dira bestak, eta egunez denak lo egoten dira».

«Agotak oso pertsonaia bereziak ziren, ageri da beren etxeetan, sobera ederrak dira. Beraien izaera erreibindikatzeko dut».

Xabier SANTXOTENA
Eskultore arizkundarra
Nafarkaria 98-VII-3

Kotte IANTZI eta LUPE Ordoki
Lesakako Kalaxka Peñako kideak
Nafarkaria 98-VII-3

♦ Aranoko Santioak edo Hernaniko Sanjoanak?

❖ Rodajea egiteko Sanjoanak, gero Aranon fuerte egiteko.

♦ Herriko festetan gehien gustatzen zaikena?

❖ Herriko jendearekin elkarrekin pasatzeko ditudan egun bakarrak dira.

♦ Hire burua nola definitzen duk, igeltsero edo bertsolari bezala?

❖ Nahiago nitek bertsolari bezala definitzea, baina zailagoa duk bertsolari ona izatea igeltsero ona izatea baino.

♦ Bertsolaria, sortzez edo ikasita egiten da?

❖ Denetik pixko bat, berezkoa bai eta landu ere egin behar da.

♦ Hi, berriz, eskola zaharreko bertsolari gaztea bezala definitu haute. Ados horrekin?

❖ Horrela ikusten banaute... nik ez dakit.

♦ Aurten Nafarroan azpitxapeldun. Datorren urtean txapelaren bila?

❖ Denok gauza berdinerako joaten gaituk horrara, maila berdintsua baitago. Heldu den urtean ere animoarekin saiatuko gara.

♦ Nafarrik ikusiko dugu inoiz Euskal Herriko txapelarekin?

❖ Ezin ziteke ezetz esan, eskoletako gazteak fuerte heldu dituk eta.

♦ Bertsorik onenak, tablatuaren gainean edo mahaiaren inguruan?

❖ Egun ona daukazunean, edonon.

♦ Gehien gustatzen zaiken bertsolaria?

❖ Momentu honetan Egaña.

♦ Bertsoaz aparte, beste afizio bat?

❖ Lehenengoa parranda eta gero pilota, bai aritzeko baita ikusteko ere.

♦ Gustorago non Gipuzkoa edo Nafarroako plazetan?

❖ Deitzen banaute, edozein tokitan, baita Bizkaian ere.

**Xabier LEGARRETA**

ARANO
Igeltseroa eta bertsolaria

Ostargi Optika
Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 - 63 07 53

ttipi-ttapa



Zure
publizitaterik

948 631188 onena

PIKABEA
Molinero drogerian
galdetu *pinturak*

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA



Bidasoa K/82 - 31700 ULLA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustura diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

© **948 631188**

Aiton-amonon Nazioarteko Eguna ospatuko du Arkupeak elkarteak

Uztailaren 26an bilduko dira Sunbillan beraien bilobekin

TTIPI-TTAPA

Igande honetan zortzi, uztailaren 26an, ospatuko da Aiton-Amo-
nen Nazioarteko Eguna. Egun seinalatua dela eta, Arkupeak elkarteak ere besta berexia egitea pentsatu du egun horretan, eta inguruko aiton-amonak beraien bilobekin bilduko dira Sunbillan.

Herriz herri autobusak abiatuko dira, eta denak Sunbillan elkar-
tu ondotik, eguerdiko 12etan omenaldia eskainiko zaie aiton-amonei pilota plazan, dantzari eta bertsolariekin. Ietan Meza Saindua eta ondotik aiton eta amonak eginen diete opari bat bilobei eta bilobek beren aiton eta amonei. Aiton-amona bakoitzak zortzi eta hogeitaz bi tarte-
ko biloba bat ekar-
tzen ahal du bestara.

Ordubietan bazkaria emanen da pilotalekuan edo inguruan, eguraldiaren arabera. Ospakizun honetarako Argetasko Jatetxe Arger-
noak prestatuko duen menua honako hau iza-



nen da: fritoak, langostinoak, izozkia, legatza erromatar erara, haragia saltsan entsaladarekin, txanpaina, tarta, izozkiarekin, ardoak, ura, kafea eta kopa. Arratsaldeko 5etatik 8etara dantzaldia izanen da.

Felipe Ganboa, Arkupeak erretiratuen elkarte-
ko arduradunak adierazi duenez, «*mundu osoan ospatuko da egun hau, eta guk ere bat egin nahi izan dugu. Egun polita eta emozioz betea izatea esperatu dugu. Azken aldian,*



85 urte eta Urrezko Ezteiak egin dituztenak gogoratu ondotik, Arkupeak elkarteak aiton-amonei eta bilobei eskainiko die orain omenaldia.

aiton-amonen eta biloben arteko harremana hozten ari dela irudi-

tzen zaigu. Ospakizun honekin buelta eman nahi diogu horrerri».

Bidasoako filme laburren I. lehiaketa irailean eginen da

Bertizko Turismo Partzuergoak lehen aldiz antolatutako Bidasoako Filme Laburren Nazioarteko lehiaketa irailearen 7tik 13ra eginen da Elizondo, Doneztebe, Lesaka eta Beran. Lehendabiziko saria lortzen duen filmak milioi bat pezeta eta *Urrezko Iratzea* esku-
ratuko ditu. Hori bai, diru horren erdia bertze filme bat egiteko erabili beharko da. Filme berri horren irudiak Bidasoa aldean grabatu beharko dira. Bigarren saria *Zilarrezko Iratzea* eta 300.000 pezeta izanen da. Erabe-
rean, *Brontzezko Iratzea* eta 250.000 pezetako saria emanen zaie ekologia, etnografia edo ingurugiroari lotutako gaiak bilduz eta Akitania, Nafarroa eta Euskadi Autonomia elkarte-
ko errealizatzaileek egindako lan onenei. Animazio filme onenak ere 250.000 pezeta jasoko ditu. Filmeak uztailaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira Bertizko Partzuergoan eta aurre aukeraketa eginen da. Lanak euskaraz edo gasteleeraz aurkeztu daitezke –bertze hizkuntzetan azpiztituluekin–.

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxoa eta sintasola.
☎ 948630941 • 948631137 • BERA

KRISTALDEGI ZERBITZUA ETXERA
(zonalde osoan)
☎ 929 443 765 • BERA

ZALAIN
JATETXEA
Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

☎ 948 630 800
ALZAGA
• Gidatzeko karneten tramitazioa
• Karneten berritzea

Dia
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta
Eztegara, 6
☎ 948631403 • BERA

Nazioarteko dantza topaketa egingen da uztailaren 25ean

Peru, Letonia, Polonia eta hemengo dantza taldeak izanen dira

ASIER GOGORZA

Uztaileko azkeneko asteburuan, munduko hainbat bazterretatik etorritako gaztetxoak ikusi ahal izanen ditugu herrian, bakoitza bere herrialdeko dantza tipikoak dantzatzeko. Udalak eta Gure Txokoako dantza taldeak antolatu dute ekimen hau, Behobia-ko Eraiki taldearen laguntzaz. Eraiki eta Gure Txokoa izanen dira, hain zuzen, egun horretan Euskal Herriko dantzak antzeztuko dituzten bakarrak. Izan ere, gainerako talde guztiak aski urrunetik heldu baitira dantzatzera. Hona hemen nazioarteko topaketa hauetan parte hartuko duten taldeak: putzuaren bertze aldetik,

‘Inca America’ taldekoak, Limatik (Peru) zehazki. Europatik, berriz, ‘Zelta Sietins’ dantza taldea, Rigakoak (Letonia). Poloniako Lodz hiriko ‘Harman’ dantza taldea, eta azkenik, hurbilxeagotik, Castellongo ‘Grup Castello’koak izanen dira gure artean.

Goiz guzian zehar Berako auzoetan ibiliko dira dantzariak. Alkaia- gan ere dantza saioa egingen dute peruarrek, besten egitarauaren barreran. Eguerdian, berriz, denek elkarrekin Altxateko karrikan aritzeko intentzioa dute. Dantzari Txiki Egunean egin ohi den bezala. Bainan eguneko saio nagusia arratsaldeko 8etan etorriko da, Eztegarra pilotalekuan.



Gure Txokoako ttikien taldea

Joan den uztailaren 9an aurkeztu zuten Gure Txokoaren txirrindulari ttikien taldea. Errotazarrek babestuko du, eta hasiberriak, alebinak eta infantilak arituko dira bertan.

Argazkia: Asier

ETXEETAN BAZKALDU

Bainan ez pentsa 14-15 urteko gazte hauek egun osoan dantzan ibiliko direnik. Peru, Castillon eta Behobiako dantzariak Berako familien etxeetan bazkalduko dute. Letoniar eta polonia-

rrek, ordea, hizkuntza arazoak direla-eta, elkarrekin bazkaldu beharko dute. Arratsaldean, Lamixinek eskainiko duen ikuskizunarekin di- bertituko dira. Egun koloretsua suertatuko da, dudarik gabe.

Asteburuan hasiko dira Gazte Jokoak

Igandean honetan, hilak 19, abiatuko dira Gazte Jokoak, hirugarren urtez segidan. Aurtengoan aldaketa nabarmenak daude, egitarau berritua aurkeztu baitute antolatzailerek. Igandean inaugurazio ekitaldia izanen da, eta astelehenan hasiko dira probak, ohatze lasterketa-

rekin. Asteartean, berriz, bi filme ikusteko aukera izanen da ilunabarrean, kiroldegia- ren parean: ‘Mozketa Sakona’ animaziozkoa, eta ‘Txotx’ filme laburra. Hortik aitzinera, egunero izanen da proba edo ekitaldi idekiren bat, uztailaren 25ean ez ezik. Ongi pasatu!

Alkaia- gako bestak

EGITARAUA

UZTAILAK 25, larunbata, Santiago Eguna:

10etan; altxaferoak eta kalejira

Berako trikitilariak

11etan; Meza Zalaian

12.30etan; Inca America dantza taldearen saioa

Arratsaldean; pilota partiduak auzoko pilotarien arte-

an, Alkaia- gako frontoian

9etan; Auzo Afaria.

11etan; dantzaldia Irats taldearekin.

UZTAILAK 26, Igandea:

Arratsaldeko 5.30etan; trikitilariak

6etan; Haur Jokoak eta txokolatea

7etan; Gure Txokoako dantzariak.

8etan; dantzaldia, Kristina eta Amaia taldearekin.



flash

Bestetako argazkiak

San Esteban bestak direla-eta TTIPI-TTAPA argitaratuko den gehigarri-ko erretrato zaharrak edo bestetakoak badituzu eta uzteko prest bazaude –bueltarekin, noski!– jar zaitetz gurekin harremanetan, 948 631 188 telefonora deituz. Edo nahiago baduzu pasa zaitetz Herriko Etxearen beheko solairuan dugun bulegotik.

Oharra:

Etxe kolekti- boetan, pisuetan bizi zaretenak, gurekin harremanetan jar zaitetz kete, oraindik TTIPI-TTAPA TELEBISTA sintonizatzea lortu ez baduzue.

Akatsak zuzenduz

Ekainaren 19an Funberan izandako sutea Berako suhiltzaile bolondresek itzali zuten, eta ez langileek, guk erran genuen bezala. Bakoitzari berea.

Futbito

Peñen arteko futbito txapelketa jokatu-ko da egunotan.

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 948 630 052
Zalain Auzoa, BERA

ALZURI

• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA




Altzate, 19 • 948630786 • BERA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

LESACA



Suhiltzaileen parkea ekainaren 27an zabaldu zen

Lesakako hogeita zazpi suhiltzaile boluntarioek badute parke berria, ekainaren 27an zabaldu baitzen ofizialki. Nafarroako Barne Departamenduko zuzendariak eta Lesakako alkateak boluntarioen lana eskertu zuten eta argazkia atera ondotik, Kasinon bazkaldu zuten suhiltzaileekin batera. Lan honetan 31 milioi pezetako inbertsioa egin da: 15 milioi Nafarroako Gobernuak paratu ditu eta gainerakoa Herriak. Lanik handiena mendiko suteak itzaltzen izaten omen dute Lesakako parkean.

Argazkia: Aitor

Guttiago falta da datorren urteko Sanferminetarako

Astebete luzean goxatzeko moduko ekitaldiak izan dira

AITOR AROZENA

Bertze urte batez joan dira Sanferminak. Ofizialki astelehenean hasi ziren, baina aitzineko asteburuan ere ez zen animaziorik faltatu herrian. Txupinazoan, trafikari istripuan hildako Blas eta Julian gogoratu ziren, ixilune hunkigarria eginez. Zubi-gainekoa euri eraun-

tsiaren azpian dantzatu zen eta peñen egunean, aurten protagonismo berezia izan du Kalaxkak, 25. urte bete baititu (zorionak!). Haurrek danborradan parte hartu eta jostetan aritzeko aukera izan zuten eta ez-konduet ere ederki probatu zuten beren eguna. Hori bai, 'Pobre de mi' egun *extran* kantatu zen aurten.



Paleta eta pala txapelketaren finalak jokatu ziren

Arkupe elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta-goma eta gizonezkoen pala motza txapelketaren finalak jokatu ziren uztailaren 4an. Gizonezkoetan Garcia (Oiartzun) eta Aierbek (Tolosa), 40-39 irabazi zieten Miera-Etxeberria oriotarrei, final ikusgarri batean. Emakumezkoak bi mailatan banatu ziren. Bigarren mailan Aurora eta Arantxa suertatu ziren txapelak, finalean Miren eta Garbiñeri irabazita. Lehen mailan, Garbiñe eta Edernek finala irabazi zioten Begoña eta Maiteri.

Argazkia: Aitor

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 948637944
LESAKA

INXIO JANARIDENDA
Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra - LESAKA

Kizkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behe
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

ETXALAR

Santa Kruz ermita zaharberritzearen besta egin da

Kanpotik eta barrendik itxura berria hartu du

PELLO APEZETXEA

Hondarreko bi urte-
etako udazken eta ne-
guan lan eta lan aritu
ondotik, bertze aurpe-
gia agertu du ermitak,
bai kanpotik eta bai ba-
rrendik. Zartadura za-
harra kendu eta berriaz
jaunzteia izan da lan
haundiena, beharrezko-
ena, gainera, ermita be-
raren zaintzeko. Horrez
gain, argia hobetu da,
gaineko eta koru alde-
ko zurajea pintatu, kal-
barioako iduri batzuk pa-
retetan paratu, lehioak
eta atea moldatu, eta ber-
tze hainbat lan. Uz-
tailaren lehen igandean,
11,30etan, bertan
egin zen meza. Ondotik,
auzokoek prestatutako
hamaiketako eskeini
zitzaizen bildutakoei.

**Etxalartarrak
Trikitalari
Txapelketaren
finalean**

Baztan-Malerreka-

Bortzirietako Gazteen
Trikitalari Txapelketan
lehen saria jaso zuen
Errekondoko Nagore
Antsalasek, Lesakako
Oihana Almandozen bi-
kote lagun izanik. Argi-
ñeneko Joseba Olagarai
eta Iriberriko Arantxa
Zubietari ere eman zie-
ten saria, hirugarrena.
Santsiñeneko Bordako
Izaskun Ariztegi izan
zen finalean parte har-
tu zuen bertze partai-
dea, Iturengo Aitziber
lagunarekin. Zazpigar-
ren gelditu ziren,
Uztailaren lehen igan-
dean Lesakan egin zen
txapelketaren finalean.

**Arkupeak elkarteak
omendutako en
arte hiru
etxalartar**

Eriaroaren 26an bes-
ta berezia burutu zuen
Arkupeak elkarteak,
Donezteben. 85 urte aurt-
en betetzen dituztenak
eta urrezko eztaietara
ailegatu direnak omen-
du zituen. Horien arte-



Ermitaren barrenaldea ageri da goiko argazkian. Beheitan, Meza ondotik, hamaiketako eta elia

an lau etxalartar daude:
Landaburuko Bordako
Jose Mari Danboriena
eta Irisarrigaraiko

Frantxisku Etxeberria,
alde batetik, lautan ho-
geita bost urte bete bai-
tituzte; Elizaldegarraiko

Benardo Sanzberro eta
Teodora Alzuguren, be-
rriz, Urrezko Eztaien-
gatik.

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - © 948637264



Lore eta landareak
Frain auzoa • © 948637826
LESAKA



KATTU

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

© 948627573 • LESAKA

• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

Albistur, 39-K
© 948627542 • LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

✓ Etxe berriak eraikitzeak
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektnra bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

IGANTZI

Bi langile hartu ditu Udalak INEMen bitartez

Biltokiko futbito taldea, bigarren Bortzirietako txapelketan

OSKAR TXOPERENA

Biltokiko futbito taldea

Ismael Iturbide eta Jose Javier Iguzkiagirre ariko dira hiru hilabete terdiz herriko zenbait lan egiten. INEMek urtero ateratzen duen deialdiaren bitartez kontratatu ditu Udalak. Bertzalde, Piedade aldera doaie argiteriaren lanak egiteko eskeintza bakarria aurkeztu dute Herriko Etxean. Udalbatzak onartuz gero, pentsatzekoa da egiten ere abudo hasiko direla. Baserrietako zenbait bideren moldaketa ere behin betiko onartu du Nafarroako Gobernuak. Orain proiektua egiten hasi beharko.

Bigarren gelditu dira azkenean Biltokiko futbito jokalaria Lesakan jokaturako Bortzirietako txapelketan. Bitartean partidu bikainak egin bazituzten ere, ezin izan zuten finaleraino. Lesakako Txanpion Luis taldea gainditu eta 8-1 galdu zuten.

Kontxi Almandoz saritua

Eskolarteko literatur sariak banatu ziren joan den hilabetean, eta DBHko 1. eta 2. maila dagokionez, narratibaren, Kontxi Almandoz igan-tziarrak eraman zuen saria, "San Juan gauan,



Igantzi eta Arantzako parrokiek antolatutako bidaia

Igantzi eta Arantzako Parrokiek antolatutako bidaiera joan zen igantziar taldearen argazkia da hau. Arantzarekin batera egindako bidai honetan, Donostialdea bisitatzeko aukera paregabea izan zuten joandakoek: Igeldo aldea, Miramar eta Aiete jauregiak, Alde Zaharra... Ondotik, Hondarribiko Boko-Errotan bazkaldu eta oraindik Jaizkibel aldera joateko astia ere izan zuten, aitzakiarik gabeko eguraldiarekin gainera.

Argazkia: Oskar

sua, ura, mitoak" idazlanarekin. Gaia Igantzi-ekin lotura handia duena, dudarik gabe. Zorionak eta segi horretan!

Arkupeak elkartearen omenaldiak

Lau izan dira aurtengo ekaineko bestan 85 urte betetzeagatik

Arkupeak elkarteak omendu dituen igan-tziarrak: Bautista Telletxea Irikobordakoa, Antonia Ordoki Arginenbordakoa, Manuela Txoperena Zanbunbordakoa eta Joxepa Lar Talaikobordakoa.

Igeriketa ikastaroak

Ez du eguraldiak,

egia erran, bainutarako sobera laguntzen, baina, hortxe ari dira egunero-egunero, zintzo aski, igeriketa ikastarotarako izena eman zuten hamabortz hurrek. Arantzarekin batera aritzen dira eta taldeetan daude banatuta, adina eta lehenagotik dakitenaren arabera.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 948 630763



ikinaria eraikuntza
aldaketak eta despiezea
intimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errekifikadorak

Igantzi Benta • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313



Tfnoa: 948 637 127
LESAKA



BORTZIRI
UNION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS, S.A.

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



ARANTZA

Herriko Etxeak informazio boletina etxez-etxe banatuko du

Zakurrak hobekiago zaintzeko eta kontrolatzeko eskatuko da

ELIXABET ETA GARBIÑE

Udaletxeak, ohi duen bezala, laster aterako du udal informazioa. Atera bezain laster, gainera, denek izanen dugu gure etxeetan hartzeko aukera. Boletin horretan aterako diren gaien artean hauek nabarmendu daitezke: Udaletxean hartu diren hainbertze kexarengatik, eskatzen da zakurra duen bakoitzari bere animalia kontrolatu dezala. Izan ere, auzintzan agertzen baitira herriko karriketan, plazan, eliza eta bertze inguruetan zakur kakak. Orduan, eskatzen da zakurrak zikintzen duena garbitzeko. Bertzalde, gauez zakur franko lotu gabe ikusten dira, bai herrian eta bai auzoetan, eta urtero ardieri egindako kalteak haun-



Zakurrek ardiei urtero-urtero egiten dieten kalteak handiak izaten dira. Zakurrak libre ibiltzea debekatua dagoela kontuan hartuz, kontrol gehiago eskatu du Udalak.

Artxibokoa

diak dira. Beraz, kontrolatu behar dira, kontutan hartuta zakurrak libre ibiltzea debekatua dagoela, hau ez bada aldatzen Udala bertze

neurriak hartzera behartuta egonen delarik.

Idazkari berria

Isabel idazkariak baina hartu duenez, bere or-

dez Urrozko Mari Jose Larraioz arituko da. Bertzalde, Udaletxeak lortu duen subentzioari esker, Juan Mari Telletxea eta Iñaki Mada-

riaga mendian eta herriko instalakuntzetan 3 hilabete terdiz arituko dira lanean.

Telefono publikoa Udaletxeko gorapean

Aspaldidanik espe-roan egon eta gero, azkenean Udaletxeko gorapean telefono publikoa ezarri dute, dirua edo txartelaz erabiltzen ahal dena.

Bozketetako zerrendak, Udalean

Nekazal ganbaran, edo "Kamara agraria" izenez ezagutzen dugun lokalean hauteskundeak izanen dira. Bertan parte hartuko dutenen zerrenda Udaletxeko beheko tablonean egonen da ikusgai, abuztu-ko azken eguna bitarte. Erreklamazioak haue-tan bertan egingen dira.

ANTZAZELA S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihok	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujantadoa' Macizoa
Zahar antzekoa Txapeanua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

**ALBERGIA
JATETXEA**

© 948634179
ARANTZA

**NATURETXEA
JATETXEA**

Tfnoa: 948637027 LESAKA

© 948631076 • BERA

SAROBÉ

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • © 63 02 40
BERA

MALERREKA

Eguneko Zentroak hamabortz lagunendako lekua izanen du

20 milioiko inbertsioa egin beharko da Babestutako Pisuak moldatzen

TTIPI-TTAPA

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, Donezteben dauden Babestutako Etxebizitzetxei erabilera berri batzuk emateko asmoa dago. Honela, adineko hamabortz pertsonendako Eguneko Zentroa egin eta Arkupeak Jubilatuen Elkarteko egoitza ere bertan kokatuko litzaiteke.

Orain arte, Babestutako Etxebizitzek ez dute hasieran espero zen eskaririk izan eta moldaketa batzuk egitea erabaki da. Proiektuaren arabera, lehen solairua eta bigarren solairuko zati bat zerbitzu horretarako mantenduko badira ere, bigarren solairuko gainerako zatian Eguneko Zentroa egingen da. Hirugarren solairua Arkupeak elkarreari utziko zaio, beraien



Eguneko Zentroa bigarren solairuan kokatuko da

Artxibokoa

egoitza bertan kokatzeko eta lokala erosteko aukera ere emanen zaie. Beheko solairuan jantokia eta erabilera ugari aretoa egonena dira.

Proiektuaren aurrekontua (lanak eta eki-

pamendua) 20 milioi pezeta ingurukoa da. Nafarroako Gobernuak 12 milioi pezetako dirulaguntza hitz eman du, hori bai, Udal Patronatuak gainerako 8 milioiak ordaintzen badi-
tu.

Bertzalde, Solerena etxeko (Rosa Seminario karrika, 6) beheko solairua 30 urterako utziko Nafarroako Gobernuak Doneztebeko Udalari, herriko irabazasmorik gabeko elkarrean esku egon dadin.

flash

Bidasoa eta Berroango mendiak

Nafarroako Gobernuak onura publikoak deklaratu du Bidasoa eta Berroango mendiak Batzorde Administratiboak 148.000 metro koadroko lur partikulara erostea, herrilur ondegari gehitzeko.

Zuzenketa

Malerrekako Euskara Zerbitzuak aitzineko alean argitaratutako gehigarrian akatsa joan zen. Garbiñe Leizak nafar batek EHUn karrera bat egin nahi izanez gero, momentu honetan bi baldintza bete behar dituela aipatzen zuen (Euskal Autonomia Elkartearen bizitza eta Nafarroan ez izate karrera hori ikasteko aukera). Berez, bi baldintza horiek bigarren karrera bat ikasi nahi izanez gero bete behar ditu ikasle nafarrak.

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditud
948631342 BERA • 948637172 LESAKA

ttipi-ttapa internet
helbide berriak
Internet: jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn

MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

DONEZTEBE

Bear Zana Ehizi Elkarteak zuzendaritza batzordea berrituko du ortziral honetan

Titi Ostatuak, bertzalde, bere hamargarren urteurrena ospatu du

PATXI IRIARTE

Doneztebeko Bear Zana Ehizi elkarteak zuzendaritza batzorde berri baten ehizean dabil, azken batzarrean oso osorik dimititu baitzuen. Horretarako arrazoi ximplea eman zuten: ziklo bat akitu dela eta berzte berri bat hasi behar dela, aurpegi berriekin. Rafael Isasik zuzentzen zuen juntak kotoa eta elkarteak martxan jarri ditu, zenbait mendieta-ko oihanberritze lanei ekin dio eta Askingo bordak egin ditu. Berriki, lehengo asiloan elkartearen egoitza ere zabaldu da eta bertan bilera-gela, sukaldaria eta beharrezko guzira paratu dute.

Orain izen berrien txanda izanen da. Ortziral honetan, uztailak 17, aukeratuko dira, bozketa zuzenean. Zenbait bazkideren izena aipatu da, baina bozketa sistema irekia denez, edonor izaten ahal da aukeratua. Eskutitzen bidez batzarrean uztailaren 20an egingen zela adierazi bazen ere, or-



Oiloa saltsan lehiaketako sarituak

Aitzineko alean aipatu bezala, oiloa saltsan prestatzeko lehiaketa antolatu zuen Kasino elkarteak. Argazkian, lau lehendabiziko postuetan suertatutakoak ageri dira: Mertxe Altzuri eta Higinia Mutuberria; Mitxeo eta bere laguna; Juanma Leizaola eta Javier Blas eta Rafa Zabala eta Mc Iriarte.

Argazkia: Zaldia

tzirala da azkenean aukeratutako eguna.

Igerilekurako abonamenduak

Beti erabiliak izan dira, baina joan den urtean udal igerilekuak berri-ritu eta handitu zituztenetik, aunitz dira eguzkia hartzera edo igeri egitera hurbiltzen diren

doneztebarrak. Irailaren 15a bitartean igerilekua erabiltzeko aukera ematen duten abonamenduak prezio hauetan daude salgai: 4 eta 11 urte artekoak, 1.650 pezeta; 12 eta 17 urte artekoak, 3.850 pezeta eta 18 urtez goitikoak, 5.500 pezeta. Igerilekua goizeko 11,30etatik

arratsaldeko 7,45etara egoten da zabalik, baina zenbait ikastaroan ordutegi horretaz landa ere erabiltzen da. Felipe Ganboa eta Joxe Irigoien dira arduradunak.

Dagoeneko hasia da lehendabiziko ikastaroa, ttikienei zuzendua eta hiru aste iraunen duena. Uztaila eta abuz-

tua artean, arratseko 8etatik 9etara igerilekuak publikoarendako itxiak daudenean helduen ikastaroa egingen da. Interesatuak igerilekuan bertan jaso dezakete informazioa, abuztuko ikastarorako lekua baitago oraindik. Ikastaro honetan, oinarri oinarritik hasita, trebakuntza eta estiloak ikasten ahal dira.

Titi Ostatuak hamar urte


Joan den astean hamar urte bete zituen Titi ostatuak eta hori ospatzeko edaria debalde eta opariak banatu zituen larunbat arratsean. 600 sari zuzen izateaz gain, txartelak zozketa batean sartu ziren. Mendi bizikleta Sunbillara joan zen eta bi afariak, berri-ritu, Mayi Ruizek eskuratu zituen. Hamar urteotan, Titi ostatuak areto-futbol txapelketan parte hartzen duen talderik onena babesten du. Ostatuak hainbat ekitaldietarako txartelen saltokia eta Erreka mendialdearen irteeretan izena emateko lekua da.



AMEZTIA **Jatetxea - Hostala**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 948 450 028 • **DONEZTEBE**



BELARRA **OSTALUA - JATETXEA**

Ameztia karrika • **DONEZTEBE**
 Tfnoa: 948 450 306

Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolqueteendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Piztina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak



Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)

Tel. 948. 63 10 03
 Mug.: 929 01 59 23

MALERREKA

Iturengo bestak uztailaren 17tik 21era

Larunbatean pilota partida eta
aizkol apostua jokatuko dira

Ortzirala, uztailak 17

Arratsaldeko 9etan txupinazoa. Gero kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12,30etatik 4etara** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Larunbata, uztailak 18

10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **1etan** pilota partida: Etxandi-Leiza, Errandonea-Ordokiren kontra. **6etan** aizkora apostua: Arria Veta Olasagasti, Belarra eta Larretxearen kontra. **Arratsaldean eta gauez** GAUBELA taldea.

Igandea, uztailak 19

10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12etan** Meza Nagusia. **Arratsaldean eta gauez** GAUBELA taldea.

Astelehena, uztailak 20

Haurraren Eguna
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **11etan** helduentzako plater tiraketa. **11etatik 2etara eta 5etatik 7etara** haurrendako jo-

kuak: Hinchables Standar eta kotxe ibilaldia. **Arratsaldean** ongi akitzeko hurrek txokolate jatea izanen dute herriko plazan. **5etan** mus txapelketa. **Arratsaldean eta gauez** JATOR taldea.

Asteartea, uztailak 21

10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **2,30etan** urtero bezala, herri bazkaria, giroa eta umorea trikitilariet alaituz. Ondoren, ohitura galdu gabe, kalejira. **Arratsaldean eta gauez** dantzaldia JATOR taldearekin eta bestak akitzeko 'Pobre de mi'.

**Urte batzuk
badituzte bi argazki
hauek. Ongi
begiratu gero,
halere, seguru
ezagunen bat
topatuko duzuela**



ONGI PASA HERRIKO BESTAK

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak


ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91



AMETZAKO OSTATUA

Taldea: Lopezak, J. Martinez

Berezitasunak
Arrain eta mariskoak parrillan



*Iturengo Udalak
Besta zoriontsuak
opa dizkizue
Iturendar
eta bisitari guztioi*



ELGORRIAGA



Joan den urteko Santiago eguneko meza ondotik ateratako erretratoa

Elgorriagako bestak uztailaren 24tik 27ra ospatuko dira

Herriko Mus txapelketa hogeita hamalagarren aldiz jokatu da

Ortzirala, uztailak 24

10etan Elgorriagako zaldi-ekin ibilaldia. **5etan** haurren jokoak. **8etan** txupinazoa eta ezkil-jotzea. Ondotik, Malerrekak zopak herriko jatetxeetan. **8,30etan eta 12,30etatik** goizaldera dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Larunbata, uztailak 25

Santiago Eguna

10etan goiz-argi soinuak, herriko trikitilari-ekin. **11etan** Meza Nagusia. **12etan** kontzertua eskainiko du Urtxegi kordiolariak eta hameketakoa banatuko da. **6etan** 'Raices Norteñas' jota taldearen emanaldia. **Arratsalde** eta **gauez** dantzaldia GAUBELA tal-

dearekin.

Igandea, uztailak 26

10etan goiz-argi soinuak, herriko trikitilari-ekin. **12etan** Doneztebeko Mendi korallak kontzertua eskainiko du. **5etan** herriko XXXIV. mus txapelketaren eta berrendua. **Arratsalde** eta **gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Astelehena, uztailak 27

10etan goiz-argi soinuak, herriko trikitilari-ekin. **11,30etan** herriko toka txapelketa. **1etan** bertso saioa. Eguzkitze eta Egaña edo Lizaso etorriko dira. **2etan** zikiro-jatea eta bestak akitzeko dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariaren eskutik.

Sendotza egin zuten Elgorriagako hemeretzi gaztek

LORENA GALARREGI

Azken aldi honetan, egunerokotasunetik ateratzeko zenbait ekitaldi izan dira herrian. Honela, ekainaren 21ean, sendotza edo konfirmazioa eman zuen Zuasti Artzapezpikuak. Adin ezberdinetako hemeretzi lagunek egin zuten ospakizun hau eta egun berezia izan zen beraientzat eta beraien senideentzat. Eguraldia ere lagun izan zuten, eguna borobiltzeko.

Bertzalde, azken urteetako uda guzietan bezala, uztailaren hasieratik Elgorriagan daude bertan lan ezberdinetan ariko diren gazteak. Lehenbiziko txanda honetan hogeitazazpi gazte etorri dira eta hamabostaldi osoa igaro dute. Orain bigarren taldea etorriko da, bertze horrenbertze lagunekin eta hiru monitoreekin. Espainiatik eta bertze herrialdeetatik etortzen dira gazte hauek eta bixitasuna ematen diote udako egun luzei.

ONGI PASA HERRIKO BESTAK

ITUREN

ITUREN

Pazi zopak aurrez eskatuta

Tfnoa: 948 450 410

ETXEBERRIA

ZURGINDEGIA

Ongi pasa bestetan!

© 948 45 03 10 • ELGORRIAGA

HERRIKO

OSTATUA

Ituren

Zorionak eta

besta onak pasa

© 948 450325 • ITUREN

Hilarion

Jatetxea

Arrain, marisko eta bertako produktu-
etan
espezializatuak

© 948 45 00 03 •
ELGORRIAGA

GOIZUETA

Benaiborda baserria landa-etxe izanen da hemendik aurrera

Ehiztari eta Arrantzale Elkarteak batzorde berria aukeratu du

ESTEBAN AROZENA

Azken urte hauetan puri-purian dagoen nekazal turismoaren sareak ez zuen orain arte gure herriko partaiderik, baina hutsune hori betetzear dago, Aitasemegi auzoan kokaturik dagoen Benaiborda baserri ederra Landa-Etxe bihurtu baitute.

Etxearen arduraduna den Jose Ramon Zubieta Uriak esan zigunez, aktibitate hau legezatzakeak suposatu duen oztopo guziak gainditutakoan, Benaibordara agertzen direnei zerbitzu on bat eskaintzeko prest daude bera eta bere neskalguna. Baserriaren ezauzgarriak kontutan hartuz gero—bost gela bikoitz, 40 metro koadroko



Benaiborda baserrian turistak ikusiko ditugu laister.

egongela beheko suarekin, terraza, berogailu zentrala, kokapen paregabea eta herritik hiru kilometrorra—seguraski aisa beteko dituzte bezeroen nahiak.

Batzorde berria Basauntz elkarteak

Basauntz Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteak, bere komisia berritu zuen uztailaren 4an burututako bileran. Ho-

rrela, hurrengo lau urtetan Martin Lujanbio izanen da presidente; idazkaria, Juan Ignacio Perurena, eta gaineko komisiokideak, Jose Antonio Apezetxea

‘Txamo’, Juan Apezetxea, Joxe Ramon Zabala eta Fermin Narbarte dira. Diruzaina oraindik ez dute hautatu.

Marrazki lehiaketa

Udalaren ekimen bati erantzunez, festen egitarauaren barrenean agertuko diren marrazkien lehiaketa bat antolatatu du herriko eskolak ikasturtearen bukaeran.

Neska-mutikoen erantzuna ona izan omen da, eta irakasleek lan guztiak aztertutakoan, Itziar Lujanbio, Loretxo Zabala, Xumar Bakero eta Amalur Narbarteren lanak hautatu zituzten.

Hernaniko Lete liburudendan erabili daitekeen bosna mila pezetako txartela jaso dute saritzat.

Aranoko Santioak uztailaren 24tik 26ra

Oilasko jatea izanen da egun handian

Ostirala, uztailak 24 Santio bezpera

12etan Udaletxeko balkoitik, Alkate Jaunak, jalei hasiera emango dien suziria botako du. **Gaueko 10,30etan** mus lehiaketa azkarra, San Roque elkarteak.

Larunbata, uztailak 25 Santio Eguna

10etan argisoinua Goizuetako trikitilariak eskainia. **10,30etan** Meza Nagusia Santiagoren ohorez. **12etan** aspaldiko ohitura jarraituz, Arano eta Goizuetako pilotarien arteko partidua. **3etan** plater tiraketa. **6etan**

aizkolari (Arrospide eta Olsagasti) eta harri jasotzaileen (Iñaki Perurena aita-semeak) herri kirol ekitaldia. Ondoren, bertso saioa Gorrotxategi eta Zeberioarekin. **8etan** kontzertua elizan AIAR taldeak eskainita. **10etan** ohiko oilasko jatea San Roque elkarteak eta segidan festetako zozketa egingo da. Ondoren gupasa MUXUTRUK musika taldearekin.

Igandea, uztailak 26 San Joakin eta Santa Ana **10etan** argisoinua Goizuetako trikitilarien eskutik.



Joan den urteko festetan ospatutako txistularien biltzarra

11etan Meza jubilatuei eskainia, eta ondoren ‘Gure Ametsa’ tabernan hamailaketakoa. **12etan** infantil eta afizionatuen pilota parti-

dak. Ondoren jubilatuen bazkaria Herriko Etxea tabernan, Goizuetako trikitilariak eta Lazkano, Agirre eta Legarreta bertsolariak

alaiturik. **5etan** Goizuetako dantzari taldea. **6etan** Gorritiren show-a eta txokolatada. **10etan** herriko plazan antzerki handia.

Leitza eta autobidearen arteko kamioa berritzeko proiektua onartu da

Hirigintza Planaren aurrerapena ere ezagutzera eman da

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako Gobernuak Leitza eta autobidearen arteko kamioa berritzeko proiektu teknikoa onartu zuen ekainean. Bidea zabaltzeko ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda argitaratu eta erakusketa publikoan jarria da. 37.626 metro koadro espropiatu behar dituzte eta 52.771 metro koadro erabiliko dituzte obrak irauten duten bitartean. Gaur egungo errepidearen zabalera (zazpi metro) eta diseinua ez dira egokiak dagoen trafikoarentzat (2.887 ibilgailu, haue-tatik %5a kamioiak). Horregatik, istripu arriskua gutxitzeko, kamioa zabalduko da eta metro terdi zabalera bazterbideak egingen dira. Aresoko bidegurutzean, lehenasuna autobidetik datorren trafikoa-ri emanen zaio eta ez, orain arte bezala, Tolosako kamiokoei.

Hirigintza Planaren aurrerapena

Leitzako Udalbatzak Leitzako Hirigintza Plana eta Plan Urbanistikoko berriaren aurrerapena ezagutzera eman zuen ekaineko batzarrean. Plan honek herriaren etorkizun urba-



Txirrindularitza proba igandean

Guratz Mendi elkarteak txirrindulari froga bat antolatu du igande honetarako, uztailak 19. Usategietako gainetik (Basakabi) abiatuko dira goizeko 10etan, eta Leitza, Uitz, Lekunberri, Aldatz, Beruete, Jauntsaras, Orokieta, Saldias, Labaien, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Ezkurra eta Usategietako gaina izanen dute ibilbidea txirrindulariek. Argazkian, Leitzako 'Aizan-Construcciones Azpiroz y Saralegi, S.L.' txirrindulari taldeko haurrak ageri dira, ekainaren 5ean egindako aurkezpenean. Carlos Sagastibeltza entrenatzailearekin batera, Iñigo Lizartza Saizar (bigarren urteko alebina), Gotzon Aramendia Arina (lehen urteko infatila) eta Jose Maria Sestorain Rubia, Mikel Nieve Iturralde, Iker Aizagirre Lasarte eta Asier Etxeberria Telletxea (bigarren urteko infatila) ageri dira.

nistikoa baldintzatuko duenez, ahal den eta herri- ritar gehienak ezagutzea omen da Udalaren nahia. Horretarako, abuztuaren azken eguna arte ikusgai jarri dute, goizeko hamarretatik eguerdiko hamabiak bitarte, nahi duenak aztertu eta egoki juzkatzen dituen proposame-

nakegiteko aukera eman- ez. Proiektuari alegazioak egiteko, bigarren epe bat irekiko da, udazkenetik aurrera, edo.

Igerilekuen zabalpen ofiziala

Ostiral honetan, hilak 17, goizeko 12etan udal igerilekuen zabalpen ofiziala ospatzeko

eta, bidenabar, futbol zelaiko lanak bisitatu eta aspaldiko polikiroldegia- ren asmoa bertan erakusteko ekitaldia egingen da. Bertara gonbidatuak daude Nafarroako Gobernu-ko hainbat ordezkari, eskoletako zuzendariak, teknikoak, udal ordezkariak eta beste herritar batzuk.

flash

Pestetako argazkiak TTPI-TTAPAN

Erretrato zaharrak edo pestetakoak badi- tuztu eta uzteko prest bazaude—buel- tarekin, noski!— jar zaitez gurekin harre- manetan, Udale- txean galdetuz (Jos- ba) edo 948 631188 telefonora deituz. Gehigarri berexian argitaratuko dira.

Baimenik gabeko txabolei espedientea

Legez kanpo, bai- menik gabe edo es- katu ez zuten bezala egindako 15 bat txabola 'bordei' espe- dientea irekiko die Udalak. Azken urte hauetan nonahi al- txatzen ari dira arauetatik kanpo dauden era honeta- ko eraikuntzak. Udalak egoera larri- tizat jo du eta arazoa areagotu aurretik, ohar bana igorriko die eraikuntza hauen jabe- ei. Ohar honetan eskaera egin ez du- tenak egiteko auke- ra izanen dutela edo- ta legeztatutako nahi du- tenek, herriko Plan Urbanistikoa dela eta aholkularitza- rako izanen den arkitek- tuarekin koltsulta de- zaketela jakinarazi- ko die. Udalaren as- moa aipatutako arau berrien barnean sar- tzen ez diren erai- kuntzak botatzea da.

Elizatz

ERLOJUTEGI
BITXITEGIA

Nafarrentzat
prezio bereziak

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 • IRUN © 943622305



ttipi-ttapa
internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

BAZTAN

Baztandarren Biltzarra igande honetan ospatuko da

Larunbatean ere zenbait ekitaldi izanen dira

TTIPI-TTAPA

Ailegatu da Baztandarren Biltzarra berri bat ospatzeko garaia. Aurtengoan irrika berezia sortu da, izan ere, gan den urtean ospatu ez zenez jendea gogo biziz baitago orain.

Egun nagusia igande honetan, uztailak 19, izanen da, baina larunbaterako ere hainbat ekitaldi prestatu dira. Arratseko 8etan txar-rangak arituko dira herrian barna eta 9etan gaiteroekin dantzatu ahal izanen da. Gero, dantzaldia izanen da Laiotz taldearekin.

Biharamonean, goizgoizetik zabalduko Axular karrikan eskulanen erakusketa. 10etan laxoa partida jokatuko da. Eguerdiko 12etan hasiko da, urtero bezala, Baztandarren Biltzarren zutabe nagusia den orga apainduen desfilea. Herriz herri sumatu da azken astean mugimendua eta segurua da karroza ikusgarriak karrikaratuko direla. Desfilean, ohikoa denez, dantzariak eta



musikariak ere aterako dira karrozen artean. Desfilea akitzerakoan mutildantzak dantzatuko dira. 2,30etan herri bazkaria eginen da, Merkatu Plazan, eguraldiak laguntzen badu.

Bazkalondoa girotzeko ez dira faltako kantari, bertsolari eta dantzarien saioak. Ekitaldi guzi hauetan parte hartu eta, halere, nekatu gabe segitzen duenak izanen du herriko plazan Laiotz taldearekin dantzatu eta saltoka ibiltzeko aukera, arratseko 8etarik aitzin.



Aurtengoan bai, honelako irudiak igande honetan berriro ikusi ahal izanen dira. Artxiboa

flash

Azpilkuetarako sarbidea

N-121-B errepidetik Azpilkuetara doan NA-4457 errepidearen egoera hobetzea eskatu dio Balleko Udalak Nafarroako Gobernu Bide Zerbitzuari. Horretarako, bi kilometroko bide hau zabaldu beharko litzateke.

Amaiurko

sarbidea hobetzea ere eskatu da eta horretarako zubi berri bat egitea NA-2653 errepidean. Aspaldiko afera da hau, 1993an alkatea Nafarroako Gobernu Herrilari Kontseilariarekin bildu baitzen gaiaz solasteko eta 1994ko aurrekontuetan bazen 30 milioiko partida lana egiteko.

Almandozko

ur-hartzea, ur-eramatea eta depositoa egiteko lanak Construcciones Mariezcurrena, S.L. enpresak eginen ditu 25.087.678 pezeta-ren truke. Berea izan zen aurkeztutako proposamen bakarra. Lanen zuzendaritza, berriz, Macla, Ingeniería Civil, S.L. enpresak eginen du, 1.157.680 pezeta-ren truke.

AMEZTI, S.L.

KALITATEA eta ESPERIENTZIA

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

Hileta artea

Zaldubia Poligonoa • **IRURITA** • Tel. eta faxa: 948 45 22 00

ttipi-ttapa

Zure publizitatea etxe xoko guztietan

6.800 harpidedun
25.000 irakurle

☎ 948 63 11 88

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Girona

Iturriotz Auzoa • ☎ 948 592043 • **ORONOS-MUGAIRI**

BAZTAN

flash

❖ **Baztango bake-epaile**

izan nahi duenak hel-
du den astelehena,
uztailak 20, baino le-
hen aurkeztu behar-
ko du bere eskaria
Balleko etxean. Epai-
learen ordekoa ere
aukeratuko da.

❖ **Ehizi-arrantza elkarteak**

larunbat honetan, uz-
tailak 18, arratsalde-
ko 7,30etatik aitzina
eginen du urte-
ko batzarra, Elizon-
doko Arizkunenea
Kultur Etxean.

❖ **XI. Udako Saskibaloi Kanpusa**

eginen da udal poli-
kiroldegian abuztua-
ren 17tik 26ra.
Ekitaldi hau Nafa-
rroako Saskibaloi Fe-
derazioak antolatu
du.

❖ **Hirurteko Plana**

Elizondoko ur-depo-
sito erreguladorea
egiteko lana 1997-99
Hirurteko Planean
sartu dira. Aurrekon-
tu osoa 60.429.863
pezetako da eta Na-
farroako Gobernuak
46.885.238 pezeta-
ko inbertsioa eginen
du. Gainerakoa or-
daintzeko, mailegua
edo prestamoa eska-
tuko du Udalak.

❖ **35 orduko lan astearen alde**

ELA eta LAB sindi-
katuek aurkeztutako
mozioa ez zuen onar-
tu udal batzarrak.
Horren ordeztu, EAk
aurkeztutako bertze
mozio bat onartu zen.
Honetan, lanaldia pi-
ttan-pittan 35 orduak
arte murriztea eska-
tzen zen, ahalik eta
kontsentsu handiena
lortuz. ABk honen
kontra bozkatu zuen.

Herri lurretan giltzaurrondoak landatzeko eskaria luzatu du Balleko Etxeak

Baztango herri lurretan gilt-
zaurrondoak landatzeko eska-
ria luzatu dio Balleko Etxeak
Nafarroako Gobernuari, AB tal-
deko Juan Meokik, ekonomiko-
ki errentagarria izanen dela adie-

raziz, egindako proposamenare-
kin bat eginez. Meokik erranda-
koaren arabera, Baztango herri
lurrak aprobetxatzeko momentu
egokia da. Bi urtetan 50.000 plan-
ta sartuz gero, «pagoek ematen

*dutena baino diru-sarrera han-
diagoak izaten ahal dira».*
Gainera, hamargarren urtetik ha-
sita zuhaitz bakoitzak hamar ki-
lo gitzaurre ematen dituenaz
«500.000 kilo giltzaurrekin 200
milioi pezetako diru sarrerak izat-
en ahal dira. Landareak debal-
de lortzeko modua ere bada».

SENPERE



Suaren inguruko sinesmenei buruz Anuntxi Aranek errandakoak aditu ondotik, sua piztu zen Oxtikeneako baratzean eta Senpereko bertze bazterretan



Jondoni Joane gaua eta herriko bestak ospatu ditugu duela guti

Amotzeko bestak, berriz, asteburu honetan iraganen dira

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 23an Jondoni Joane gaua ospatu zen Oxtikenean. Anuntxi Aranek "Suaren inguruko sinesmenak" aipatu zituen hitzaldi interesgarrian. Entzuleek Anuntxiren azalpenak adi-adi entzun zituzten

eta gero sua egin zen Oxtikeneako baratzean.

Senpertar batek baino gehiagok salto egin zuen suaren gainetik, ohiturak agintzen duen gisan.

Arrats eder hau France 3 Euskal Herri Telebistan erakutsi zuten biharamonean. Milesker hurbildu dire-

neri, eta heldu den urte artio!

HERRIKO BESTAK ASKI ONGI IRAGAN DIRE

Aurtengo herriko bestak, bertzalde, aski ongi iragan ziren ekain hondarrean. Arrats guziz ostatueta dastaketak, eta plazan kontzertu eta dantzaldiak pro-

posatu zituzten 4 egunez. Gustu guzientzat zerbait izan zela erran daitaie. Azken egunean Mutxikoak eman zituzten euskal dantza-zaleek, eta baita pilota partidak ere; Martiarena eta Karrikartek, Alfaro, Harozarena eta Parachuren kontra jokatu zuten.

flash

Larrungo Eliz antolaketa

Kantonamendu berri bat nahi zuteneri Elizak aintzina hartu diote. Sarako, Azkaingo eta Senpereko parrokiek Larrungo Eliza moldatuko dute.

Artzain xakur txapelketa

Txapelketa uztailaren 26an proposatu du Sanoki elkarteak. Aldi huntan ere ikusgarri paregabea emanen dute xakurrek. Usaian jendeari ainitz gustatzen zaio egun hau, zuek ere goxoan etortzen ahalko zaizte Euskal Herriko xakur trebeenak ikusteko.

Etsamining denboraldia

Udarekin batean etorri zaigu etsamining denboraldia. Azterketak gairiditu eta diplomak eskuratu dituzte senpertarreri, zorionak.

Oldarra koral herrian

Oldarra gizon koral famatua herriat etortzekoa da uztailaren 22an.

Amotzeko bestak aste ondar

Uztailaren 17, 18 eta 19an ospatuko dira. Ortziral arratsean zikiroa izanen da, eta biharamonean, berriz, Anje Duhalde bakarlariak kontzertua emanen du. Ondotik dantzaldia izanen da Deskantxo taldearekin. Igandean ere ospakizun ainitz izanen dira egun osoan eta horrekin bururatuko dira aurtengo Santa Madalenak.

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA • Miopia • Bista alfertua • Estrabismoa • Begi lausoak-kataratak	GIHARRE ARAZOAK • Bixkortzea • Artritia, erreuma • Artrosia, Lunbalgia • Bihurdurak, etab...	MAGNETISTA NATUROPATA	ONDORIOETATIK INDARTZEKO • Diabetia • Asma • Larro azaleko alergia • Buruko mina • Zizareak • Oinen izerdia • Prostata, etab...
KONTSULTA ORDUTEGIA Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu		San Marcial, 7-4 IRUN	

ALFA LAVAL
Kontzesionarioa

Hazkuntzarako tresneri guziak

S.A.R.L. SABALOU

64310 SENPERE
Tel. 0559542766
Fax 0559542951

BASCOMAT

ETXEGINTZAKO MATERIAL GUZTIAK

KALITATE ETA ZERBITZU

ERAKUSTOKIA:
ZURGINTZA, ADERAILUAK

Lizardi Lan zelaia • 64310 SENPERE
TEL. 05 59 54 15 40 - FAX 05 59 54 51 20

SARA

Ikasturte hondarreko bestak egin zituzten eskola eta ikastolako haurrek

Ikastolakoak Hegoaldean gaindi ere egon dira bidaian

MIXEL ETA JACQUELINE

Ikasturtearen amaitzearekin eskolek bere eguna ospatzen dute urtero. Gainera eskolak urte hondarreko besta ekainaren 13an egin zuen polikiroldegian, eta beheko eskolak, berriz, ondoko larunbatean zuelarik leku berean.

Oporretarat joan aitzin, egun goxo eta alai baten iragaiteko parada ukan zuten haur, erakasle eta burasok guziek. Olhain ikastolak, bere aldetik, Ikastolen egunean parte hartu zuen joan den ekainaren 27an Amikuzen, Donapaleu herrian.

Ikastola bidaiez

Joan den ekainaren 22, 23 eta 24ean Sarako Olhain ikastolako haurrak Hegoaldean gaindi ibili dira. Nahiz eta Orioan aterbetuak izan, inguruak bisitatu dituzte, bai eta ere ezagutu: Txiki Park jolas parkea, Donostiako itsas erakustokia, Igeldo mendia eta bertze zernahi



Igande huntan azoka izanen da herriko plazan.

Artxiboa

leku ikusiz. Ez daударik irudi asko ekarri dutela beren gogo bihotzetan.

Euskara jalgi hadi plazara

Deiadarren leloak dio: "Bete hitza euskarari lege geriza". Deiadarrek antolaturik, 2.400 metro luzeko banderola zabaldua izanen da iparraldeko 10 lekutan, euskararen ofizial-

tasuna aldarrikatuz. Sarako kolektiboak erantzun baikorra eman zuen igandeko meztatik landa elkarretaratuz muxiko eta dantza jauzi batzuen emaitako.

Kiroletako balentria bat

Uztailaren 4ean, Ezpeletako Napurrak elkarteak antolatu mendi lasterkaldiaren irabazlea Daniel Iramuno sa-

ratarra dugu. Hogeita hamar kilometro kurrutu ditu 2 ordu 23 minutu eta 2 segunduren barne. Goresmenak!

Udakari aktibitate ezohikoak

Natura eta oihanaren ezagutza: Hitzordua ortzegunero goizeko 9etan Turismo Bulegoan uztailaren 2tik agorrilaren 27rat.

flash

